

Hiru tona elkartasun Saharako errefuxiatu kanpamentuetara

Lasarte-Oria, Usurbil eta Añorgako herrialdeetan bildu diren elikagai eta konpresak otsailaren 20an aterako dira Gasteizetik kanpamentuetara

Urtero legez, Lasarte-Oriako Sahararen herriaren lagunak Saharako errefuxiatu kanpamentuetarako elikagaiak eta konpresak bildu dituzte urtarri-lako hilabeteetan zehar.

Horren emaitza, Lasarte-Oria, Usurbil eta Añorgako herrialdeak VI. Sahararen Euskal karabanara 3 tona elkartasun bideratuko dituela da.

Lasarte-Oriako Sahararen herriaren lagunak asteartean eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, "harritu egin gara 3000 kiloetara iritsi garelako, krisia dela eta, ez genuen hainbeste espero."

Hiru tona horietatik ia bat, urtarriaren 23an, Urbil merkatalgunean bildu zuten.

"Jendea aurrez aurre izatea eta gu paketeak egiten ikusteak, konfidantza gehiago ematen duela uste dugu. Iaz hotzago izan zen eta, aurten gainera, Aminatou Haidarrek egindako gose grebak ere jendeak gaiari buruz gehiago jakitea ekarri duela uste dugu," azaldu zuten.

VI. Euskal Karabana

Elkarteko kideek aurreko urteetan bezala, Euskal Herria osoan 400 tona biltzea espero dutela aipatu zuten, "baina Donostian esate baterako, beste urteetan baino gutxiago biltzen ari dira. Beraz, ez dakigu kopuru horretara iritsiko garen edo erakunde baten laguntzarik izango dugun kopuru horretara iristeko."

Elikagai karabana, otsailaren 20an aterako da Gasteiztik eta martxoa erdialdera



Sahararen herriaren lagunak taldeko Txema Benito, Saleh Hamidaoui eta Ahmed Oualia bildutako elikagaiekin.

iritsiko da errefuxiatuen kanpamentuetara.

"Bigarren eskuko kamioi erosten dira eta Eusko Jaurlaritzak ere laguntzen du baten bat eskuratzen. Horiek guztiak, Alacantera egingo dute, handik ferryan Arjeliara eta bertan paper guztiak ongi daudela egiaztatzerakoan kanpamentuetara," azaldu zuten.

Egoera salatu

Honetaz gain, herriak kanpamentuetan bizi duen egoera salatu zuten, "Estatu Espainiarra eta Frantsesak Marokoko gobernuari laguntza ematen dio Saharako lehengaiak ustiatu eta Saharako herritarrek kanpamentuetan mantentzeko, kanpamentuetan, aldiz,

herritar asko gosea dute eta egoera larrian bizi dira."

"Izan ere, hemen krisia ekonomikoa dugu, baina munduko leku askotan elikagai krisia edo humanitarioa baitago," gogoratu zuten.

Horregatik, herritarrek honelako ekimenetan, Saharar herriaren aldeko, zein beste herri baten aldeko ekimenetan parte hartzea animatu nahi dituzte elkartetik.

Eskertza

Bestalde, Lasarte-Oriako Sahararen herriaren lagunak Lasarte-Oria, Usurbil eta Añorgako bizilagunei eskertu nahi die ezinbestekoa izan den partaidetza.

Eta, noski, elikagai bilketa egin den ikastetxe, supermer-

katu eta tabernei ere eskerrak eman nahi dizkiete elkarteko kideek, hau da, Lasarte-Orian Landaberri ikastola, Sasota-Zumaburu ikastetxea, Lasarte-Usurbil Institutua, Emakumearen Zentro Zibikoa, Michelin Koop., Eroski center, Super BM, Dia supermerkatuak, Arsuaga Autozerbitzua, Jalgi, Sustrai eta Obelix taberna; Usurbilen Eroski Aliprox, Dia, Usurbilgo Ikastola eta Añorgan, Añorgako Ikastola.

Eta, era berean, Hiru sindikatuari, "haiek bigarren eskuko kamioiak bidaiari egiteko prestatzen dituztelako eta gidariak, gainera, Alacantera bidaiari egiten dute," azaldu zuten Lasarte-Oriako Sahararen herriaren lagunak. •



Psikologi arreta zerbitzu berria aurkeztu zuen Jesus Muñoz-ek Emakumeen Zentroan /4

GIZARTEA/ 3

Herritarren erreklamazioak ugaritu egin dira 2009. urtean

GIZARTEA/ 5

Astelehenero film sozial bat eskainiko da otsailean zehar kultur etxean

KIROLA/ 6

Buruntzazpi Txirrindularintza Eskolak lehen garaipena lortu du pistan

Salesianos Urnieta Salesiarrak

Ergoien auzoa, 6 - Tlf: 943 551 789 * D Eredua / Modelo D (Euskaraz)

DBH/ESO

Unibertsitate edo lanean hasi arte giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

matrikula zabalik
matricula abierta

otsailak 1-12
1-12 de febrero

zatoz ven!!

www.salesianosurnieta.com

otsailak 6 - 11:00
6 de febrero - 11:00



Neure kabuz



Gazteak

"Gazteak; ez dute ezertan parte hartu nahi" "egun osoa lokalean sartuta egoten dira, botata" "harremantzeko zailtasunak dituzte, oso itxiak dira" "etxean sartu orduko ordena-gailua piztu eta logelan isolatzen dira".

Ez dira komentario isolatuak, askotan entzuten ditut herriko espazio ezberdinetan, baita pertsona ezberdinen ahotan ere (guraso, bizilagun, jubilatuek, gazteak ere tartean).

Ez dut bat egiten, inolaz ere ez.

Gaztea jendartean egiten eta berregiten da, ez da gauza bera oraingo gaztea, atzoko gaztea edo etorkizuneko. JAKINA. Eta zer? Zergatik dago konparaketa egiteko joera? Zergatik dugu orokortzeko joera? (besteak beste joera guztiz baztergarriak iruditzen zaizkit, batere erakitzaileak ez direnak gainera).

Onartzen badugu gazteak gure jendarteko parte direla, egin eta berregiten direla; bizi diren jendartearen molde eta eredu-tatik ikasi, bizi eta bameratuko-aren emaitza direla esango nuke nik.

Gaztea kontzeptua kulturari lotuta dagoen kontzeptua da, kulturaren arabera gaztea hitza modu batetara edo bestera ulertzen da. Jendarte aldaketek gazteria kontzeptu eta ikuskeran zuzeneko eragina dute.

Orokortzeko joeran gaztea, talde homogeen bezala baloratzen eta ikusten da. Eta ez da horrela. Gaztea edo eta gaztetasuna bizi eta ibilbide ezberdina dituen talde heterogeen bat da. Adinaren eta ezaugarrien arabera beharriak eta arazoak aldagarriak dituen talde heterogeen bat.

Heldu batzuk bezala GAZTEAK ekintzaile, parte hartzaile, alai, maitakor, arduratsu, ameslari, ikasle, guraso, kirolari, konprometitua, etab luze bat garelako ere.

Ainara Lasa

Zorion-agurrak



June

Zorionak maitia! Muxu goxo-goxo pila bat. Karla, ama eta aitaren partetik.



Manex

Zorionak Manex! Zure guraso, Maddi eta aiton amonen partetik. Ondo pasa!



Paula

Zorionak bigarren urtebetetzean maitia! Osaba eta familiaren partetik.



Ane Miren

Zorionak printzesita! Ondo pasa zure festan eta 4 muxu potolo familiaren partetik.



Asier

Zorionak zure 11. Urtebetetzean. Muxuak familiaren partetik.



Igone

Zorionak zure 8. Urtebetetzean! Aita, ama, Jagoba eta famili guztia- ren partetik.



Malen

Zorionak eta 9 muxu potolo exeko pinpolo- rentzako. Familiaren partetik.



Unai

Zorionak eta 6 muxu handi. Zure familiaren partetik.



Nerea

Zoriona pituxal! 4 muxu haundi familiaren partetik!



Aimar

Zorionaaka zure 5.urtebetetzean, guraso eta zure arrebaren partetik. Ondo pasa!!!



Mari Karmen eta Idioia

Zorionak bikote! Ondo pasa bakoitzak bere egu- nean eta kontuz parrandekin. Zoroetxera eraman ez zaitzatela.



Jaiotzak

Mateo eta Maider Gasalla Gallo, urtarrilaren 31an
Muñiz Martínez, urtarrilaren 30ean
Marwa Zarouali Zerouali, urtarrilaren 24ean

Paula López Buenhombre, urtarrilaren 23an
Sara Zarouali Merdi, urtarrilaren 21ean

Heriotzak

Joxe Berasategi Ormazabal, urtarrilaren 31an 68 urte zituela

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaia eta berri berria. Biko- tearentzat egokia. Harremaneta- rako zenbakia: 657 708 866.

Harremanetarako, isa.g.77@gmail.com edo smsak 687 756 358 zenbakira.

• Salgai autorako 4 hagu (Ilanta) 195/ 50r 15 neurrikoak.Tel.: 638 421 713.

• Gela bat alokatu nahi dut sukaldea erabiltzeko eskubidea- rekin. Lasarte-Orian edo ingur- uan. Presazkoa da. 690 068 365, Iñaki, deitu 19:00etatik 20:00ak bitartean.

• Salgai inauterietako 3 jantzi, 2 Obelixenak eta 1 Axterisenak. Tel.: 638 421 713.

• Etxe eguzkitsua bat alokatzen da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu. Harremanetarako telefonoa: 628 904 130.

• Argazki kamara salgai. Sony Cyber Shot Dsc h2, 6 megapixel, 12x, Carl Zeiss lentea. Gran angularra eta teleobjetibo. Hone- kin batera guzti hau eramateko motxila 1. Prezioa 400 euro. Tele- fonoa 605 763 341 Iñaki.

• Garaje itxi bat saldu edo aloka- tu nahi da Lasarte-Orian, Kale Nagusian Dia supermerkatuaren parean.Tel.: 600 612 085.

Lan-eskaintzak

• Tabernari euskaldun bat behar da, extra moduan lan egiteko (asteburuetan) Lasarte-Oriako taberna batean.Tel.: 629 951 931.

Salerosketak

• Egoera onean dagoen umezta- ko arropa eta hainbat tresna sal- gai: bi sehaska, bikientzako ahulkia neguko zakuekin, etab.Arropa gordetzeko konpromezua. Prezioa 450 euro, negoziagarriak.

Lan-eskariak

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak eta haur eta hel- duen zainketarako.Harremaneta- rako zenbakia: 647614537.

Oharrik jartzeko:

txinxarri@txinxarri.info • www.txinxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4, 20160 Lasarte-Oria

* Atal honetako oharrik, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ...943 007960
DYA ...943 464622
Gurutze Gorria ...943 363953
Udaltzainak ...943 362442
Ertzaintza ...943 288888
SOS Deiak ...112

Udala

Erregistroa943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroledegia943376182
Kulturetxea943376181
Zerbitzu Sozialak ...943376179
KIUB943361605
Udal eskualtegia ...943361621
Obrak eta zerbitzuak943 376180

Guardiak

Ostirala, 5
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 6
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 7
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 9
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 10
Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 11
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Txinxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txinxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txinxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Telefoniako operadoreak dira Lasarte-Oriako KIUBen kexa gehien jaso duen sektorea.

Erreklamazioetan gorakada handia

Telefoniako operadoreak eta Iberdrola dira kexa gehien batzen dituztenak

Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoa, 1988an ezarri zenetik, urte urte gehituz doa kontsulta, erreklamazio eta kexen kopurua, herritarrek gero eta kontzientziatuagoak baitaude kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideekin, eta, bereziki, udal-zerbitzu honen funtzionamendu eraginkorri esker.

Horregatik, KIUBek jakin arazi digunez 2009. urtean zehar 2.002 kontsulta tramitatu ditu guztira, hau da, ia baino %33 gehiago eta erreklamazio kopurua 437koa izan da eta 2008. urteko datuekin alderatuta, %56ko gorakada izan da.

Kexak eta kontsultak

KIUBen datuen arabera, telefoniako operadoreak dira berriz ere kexa gehien jaso duen sektorea, eta Orange eta Telefonica-Movistar dira salaketa gehien izan dituzten konpainiak. Horiekin batera, Iberdrolak argindarraren ordainagiriekin egindako fakturazioa izan da, aurreko urteetan bezala, beste salaketa-iturri nagusietako bat.

Erreklamazio horietatik ehun, kontsumitzailearen edo erabiltzailearen alde konpondu direla adierazten du KIUB-k eta gainerakoetatik kopuru handi bat oraindik ez duela erabakirik ere azaltzen du, "zeren eta ebazpenak, askotan, urtebete

igaro eta gero iristen baitira."

Argibide-eskaerei dagokionez, telefoniaren sektoreak betetzen du, halaber, lehen postua hainbat gaiekin loturiko kontsulteren kopuruan: baimenik gabe alta ematea, eskatu eta informatu gabeko SMS mezuengatik kobratzea...

Hiri handien kopuruak

Era honetara, Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen kontsumoko memorietan, Lasarte-Oria lehenbiziko hamabost herrien artean ageri da erreklamazio-kopuruan, Donostia, Bilbo eta Gasteiz hiriburuekin eta Barakaldo, Getxo, Portugalete eta Durango hiri handiekin batera, besteak beste. •

Plazaolako landa-parkeari buruzko proposamenak bilduko ditu Udalak

Lasarte-Oriako Udalak parte-hartze prozesu berria garatuko du. Martxoan hasiko da, eta Plazaolako landa-parkea izango dena zein espazio osatuko duten definituko du.

Plazaolako proiektua

Oztaran auzoan egongo da Plazaolako landa-parkea, Plazaolako bide berdearen paraleloan ibarreko errekaren ondoan, eta izena ematen dion trenbide zaharren tratatua barrera hedatuko da.

200.000 m² baino gehiagoko hedadura duen gune

hori hirigintzako plangintzaren hasierako fasean aurkitzen da eta Barruko Erreformatarako Plan Berezia noiz idatzi zain dago.

Hori dela eta, orain da unerik egokiena herritarren proposamenak jasotzeko, leku hori herritar guztiena izan dadin.

Herritarren parte hartzea

Gauzak honela, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen *Kudeatuz* programaren barruan kokatuko da prozesu berri hau. Izan ere, honen xedea herritarrek parte hartze-

ko mekanismo efikazagoak sustatzea baita.

Plazaolako landa-parkeko prozesua dinamizatzeaz arduratuko den enpresak plan bat diseinatu du.

Hau espazio hori populazioko sektore bakoitzaren, adinekoen, haurren, gazteen eta helduen premien eta lehentasunen arabera definitzeko erabiliko da.

Lehen bilkura martxoan izango da, eta prozesuaren eduki guztia azaltzen duen gutun baten bidez emango zaie horren berri lasarteoriatar guztiei. •

AUTOBUSAK

Aldundiak laguntza eman dio TSST autobus konpainiari

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak lehengo asteko ostegunearan garraio esleipenduen eta elkarten zerrenda argitaratu zuen. Honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 110.825 eurotako diru laguntza eman dio Lasarte-Oriako TSST autobus konpainiari.

Laguntza honen bitartez, autobus konpainiak jakin arazi digunez, ia egin zuen inbertsioa, autobus berria erostea, berreskuratu du.

Arantza Tapia Lurralde Mugikortasuneko eta Antolaketa foru diputatuak adierazi zuenez, laguntza horiek helburu bikoitzak dute. Batetik, konpainiei herrien artean eta hiri barruan dabilzan ibilgailuak berritzen laguntzea eta, ondorioz, bidaiarien erosotasuna eta segurtasuna hobetzea; eta, bestetik, zerbitzuak mugikortasun urritua duten pertsonentzat ere moldatzea.

Izan ere, laguntzak irisgarritasun baldintzak betetzen dituzten autobusak erosteko izan baitira, hau da, plataforma baxuko autobusak dira eta arrapalada dute gurgildun aukientzat, baita igogailua ere. •

SUTEA

Bi udaltzainen ekintza ausarta eta gogoangarria

Larunbatean arratsaldeko 15:00ak aldera Kale Nagusiko etxe batek su hartu zuen eta bi Udaltzainen erantzun azkar eta ausartari esker ez zen heriotzarik gertatu.

Iker Ortubia eta Raúl Jiménez Lasarte-Oriako Udaltzainen etxebizitza batetara sartu ziren suhiltzaileak iritsi aurretik eta barruan kea amastuta larri zen pertsona ateratu zuten.

Lasarte Oriako Udaleko alkatetza eskerrak eman die ohar baten bidez bi udaltzainei eta bere profesionaltasuna goraiatu du. Era berean, udaltzainen erantzun azkarra nabarmentzen dute Udaleko ordezkariak: "Haien parte-hartze azkarrari eta arriskutsuari esker, ez zen kalte personalik izan joan den larunbatean gertatutako sutean." •



Arg.: Ibac15

TRAFIKO MOZKETA

Loidi kalea eta Goikale itxiak asfaltatze lanengatik

Loidi-Barren eremuko urbanizazio lanen baitan, gaur ostirala, asfaltatze lanak egingo dira Loidi kalean eta kale honen eta Goikaleren arteko bidegurutzean.

Lanak egun osoan zehar luzatzea aurreikusita dago. Hori dela eta, trafikoa mozteko beharrezkoa izango da, bai Loidi kalean eta baita Goikalen ere.

Lasarte-Oriatik Urnietara eta Urnietatik Lasarte-Oriara ibilbide alternatiboetatik egin beharko da.

Gauzak honela, Udalak barkamena eskatu nahi du trafikoko mozketa honen ondorioz sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

HAITIREKIN ELKARTASUNA

Herritarren eskuzabaltasuna eskertu

Lasarte-Oriako parroketako Misio taldeek Haitiren aldeko afari solidarioa antolatuko zuten urtarrilaren 23an, Arantzazuko Amaren eliza auzoko lokalean.

Bertan 4.300 euro jaso ziren, Mesedeetako Amen ordenaren bitartez Haitira bideratuko direnak.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete afarian parte hartu zutenei eta nahiz eta afarira ez joan, dirua eman zutenei. Haitik gure beharra duelako, mila esker. •

‘Gu geu gara garenaren arduradun nagusi eta bakarrak’

■ Gure beharrak asetu ahal izateko gure premietaz jabetzeaz gain euretara nola iritsi aztertu beharra dugu ■ Jesus Muñozek hitzaldiak eman ditu emakumeen zentroan

Zer behar dugu? Nola sentitzen gara? Askotan gure erantzuna galdera hauen aurrean ondo edo txarto izan ohi da. Horrek ez du ezertarako balio, erantzun horiekin periferian geratzen gara. Gure benetako sentimenduak bi hitz horien bitartez mozorrotu egiten ditugu.

Jesus Muñoz psikologoak astelehenean eta asteazkenean, arreta psikologikoko zerbitzuaren aurkezpena egin zuen. Ondo sentitzeko zenbait gako ere azalduz.

Espazioa behar dugu gure beharrak identifikatzeko, eta era berean euretara iristen asmatzeko. Pertsona bakoitzak lasaialdi erak ditu, askok kalera irten eta paseoa ibiltzen dira euren orekara bueltatu baino lehen. Gu geu gara gure beharrak asetu ditzakegun bakarrak. Gure influentzietaz jabetu behar gara ditugun jomugetara iritsi ahal izateko. Joera aldaketarako prest egon behar gara orotan, gure jokae-

ra funtzionatzen ez badu beste alderdi batetik joz, azken helburua edo intentzioa lortzeko. Honek emaitzak eman ditzake, baina ez beti guk desiraturakoak. Gu geu gara garenaren erantzule. Eta era berean, gure bizi-moldeko erantzule bakarrak. Guk erabakitzen dugu pertsona batekin egon edo ez, gure dohaina da. Puntu honetan, ditugun beldurrak agertzen dira, gure bizimodua aldatu dezakete eta askotan horri berari, aldaketari, diogu beldurra. Sentimenduak zintzo jokatu beharra dugu.

Barnealdean dugu oreka

Gure kemenak aldakorrak dira, eta horretaz konturatu behar dugu. Bakoitza osotasun baten multzoa da, zergatik orduan gure burua epaitu? Argi eduki behar dugu garrantzitsuena gure barnealdera jotzea dela, gure konfidantzara. Gu geu izan behar gara, ni naiz, nire barnealdea hau da,



Astelehen eta asteazkenean eman zituen Jesus Muñozek azalpen hitzaldiak emakumeen zentro zibikoan

sendotu eta sostengatzen nauena. Garrantzitsuena barnean dugu eta hori aurkitzen eta onartzen ikasi behar dugu.

Psikologia lagun

Psikologia zure barnealdera bidaiatzen laguntzen dizu, zure beharrak zeintzuk diren erakutsi eta nork eman diezazkigun erakutsi. Zure barnealdearen nukleoa aurkitzen duzunean, orekan zaude, zugar konfidantza lortu duzu. Osotasuna naiz, gauzak dator kidan moduan onartzen ditut, aurre egiten dakit, hor dago gakoa, bakoitzaren barnealde-rako bidea egitea, lortzea, eta orduan aurkituko dugu salbazioa. Gauzak pasa egiten dira, onak eta txarrak, eta onartu egin beharra ditugu. Indartsu eta seguru sentitzen bagara, hobekien aurre egingo diegu planteatzen zaizkigunei. •

Arreta Zerbitzua

Arreta Psikologikorako zerbitzua aurkeztu zuen Jesus Muñoz psikologoak Emakumeen zentro zibikoan.

Behar bat duten Lasarte-Oriako emakumei eskaintzen zaie zerbitzu hau. Erlazio familiarra edo bikotekidearekin hobetu nahi duzu? Bikotekideaz banandu zara? Erretzeari utzi nahi diozu? Ez zaizu zure irudia gustatzen? Gaixo zaude eta burua ezin altxatu? Tratu txarren jasapena izan duzu? Bakarrik sentitzen zara?

Zure irmotasuna kolokan jarri da eta berreskuratu nahi duzu? Emakumeen Zentro Zibikotik pasatzea

baino ez duzu eta bertan zita eskatu. Lehenengo hiri sesioak dohainekoak izango dira, udalaren diru laguntzari esker. Hirugarren sesiotik aurrera, 30 euro ordaindu beharko dira.

Gogoratu, betidanik egin ditugunak egiten jarraitzen badugula, gure bizitza ez dela aldatuko. Betikoak egiteak ez dizkit irtenbideak eman, beraz, alternatibak bilatu eta bizitzaren oreka lortzeko bidea egiten ikasi eta hasten hasi behar naiz.

Ez galdu zure oreka berreskuratzeko eta bizitzaz disfrutatzen ikasteko aukera. Informazio gehiago Emakumeen zentro zibikoan. •



Gure konfiantzaren bila. Bidea bizitza da eta eguzkia, orekaren erdigunea.



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

ZATOZ TXOTX EGITERA!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

Musika, literatura eta arteak gizartean duen eragina aztergai Zinema Soziala zikloan

Astelehenean, musika izango da gaia eta *Copying Beethoven* filma ikusiko da

Otsailean Zinema Soziala zikloa ikus- teko aukera egongo da Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian, otsailaren 8, 15 eta 22an, arratsaldeko 17:30ean.

Aurten kulturak gizartean duen eragina aztertuko dute. Hain zuzen ere, hiru saiotan musikak, literaturak eta arteak duten garrantzia pelikula eta hizlarien bitartez ezagutzeko aukera egongo da Danok Kide elkarteak Udaleko Kulturako Sailaren laguntzaz antolatzen duen ekimenean.

Herritarren artean duen arrakasta handiari esker, aurten VI. edizioa du Zinema Sozialeko zikloak eta aurreko urteetako ikusle kopurua mantentzea espero dute antolatzaileek.

Horregatik, antolatzaileek herritarrak gonbidatzen dituzte zikloan parte hartzera.

Saioak

Saio bakoitzean gai bat jorratuko da, honela film bat ikusi eta gai horri buruz aditua den hizlariaren gogoetak entzun ahalko dituzte kultur etxera hurbiltzen direnek.

Lehenengo saioan, hurrengo astelehenean, musika eta gizartea izango da gaia. Horretarako *Copying Beethoven* pelikula ikusi eta Gipuzkoako Ateneoko Angel Garcia Ronda lehendakariak hitz egingo du gaiari buruz.

Balzac y la joven costurera china filmaren bitartez, literatura eta gizartea aztertuko dira otsailaren 15ean, M^a Carmen Perez izango da aditua.

Otsailaren 22an, berriz, artea eta gizartea jorratzeko, *La joven de la perla* filma ikusgai eta Jose Javier Fernandez hizlaria izango dira ekimeneko azken saioan.



Asteleheneko saioan, musika izango da gaia eta Gipuzkoako Ateneoko Angel Garcia Ronda lehendakaria da hizlaria.

Copying Beethoven

Astelehenean ikusi ahalko den pelikulan Beethovenek

konposagile lanetan egin zituen azken urteak ezagutu ahalko dituzte eta zehazki

Bederatzigarren Sinfonia bukatu eta gortasunak sortzen dizkion arazoak. •

Teknologia berrien erabilera.

Liburutegi-zerbitzua, eskola-orduz kanpo.

Haur-Hezkuntza
Zumaburuko eraikuntzan

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikuntzan

Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu

Behar berezia duten ikasleentzako aholkularia.
-Hizkuntza eta entzumena lantzeko gela.
-Heziketa bereziko gela.
-Laguntzak.



Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Haur Hezkuntzako ikasleentzat goiz txokoak

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Otsailaren 1etik 12ra
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274

Lasarte-Orian, zeure herrian!

Ingelesa 4 urtetik aurrera.

Jangela zerbitzua

Garraio-zerbitzua



Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarriko da igandean

Lan askoren ostean eta Ostadar K.F.-ren laguntzaz, azkenean lortu dute bere helburua Beltzak Errugby taldeko lagunak, errugby eskola antolatzeara.

Igande honetan, otsailaren 7an, irekiko ditu atek eskolak. Eta antolatzaileek jakin

arazi dutenez, lehenengo entrenamendu-erakustaldira Lasarte-Oriako ikasle guztiak daude gonbidatuta. Hitzordua goizeko 09:00etatik 10:30era izango da Michelinen.

Saio honen ondoren, igandero izango dira entrenamenduak. •



Errugbyko entrenamendu-erakustaldia egingo dute igandea goizean Michelinen.



Gipuzkoako txapelketan lehiatu diren Jon Altuna, Xabier Peñagarikano, Xabier Bengoetxea eta Eñaut Pagola.

Bazpi eskolaren lehen garaipena pistan

Xabier Peñagarikano usurbildarrak Gipuzkoako neguko pistako trofeoa eskuratu zuen

Kiroletako oharrak

8588 zenbakia irabazlea zozketan

Ostadar K.F.ak asteburu pasa zoragarria zozketatu zuen, nekazal etxe batean.

Zenbaki saritua El Niño loteriariko azkeneko 4 zenbakiekin bat datorren txartela da, 8588 zenbakia.

Irabazleak Ostadarreko bulegora deitu, 943 360 433 telefonora, edo Geltoki kalea 25 zenbakian duen egoitzara jo behar du. Gaur da saria eskuratzeko azken eguna.

Pala Txapelketan izena emateko epea luzatu da

Ostadar K.F.ak XVI. Gomazko pilotako Pala txapelketako izena emate epea gaur amaitzen bazen ere, antolatzaileek astebetetz luzatuko dute epea, otsailaren 12a arte.

Bikoteek txapelketako oinarriak eskuratzeko Ostadarreko bulegora, Geltoki kalea 25 zenbakira hurbildu edo 943 360 433 telefonora deitu behar dute.

Buruntzazpi txirindularitza eskolak gogor dihardu lanean Lasarte-Oriako eta Usurbilgo gaztetxoekin.

Horren adibide, 2010. urteko lehenengo garaipena dugu, Xabier Peñagarikano, 2. urteko jubenil usurbildarrak, *Gipuzkoako neguko pistako trofeoa* eskuratu duela da.

Bazpiko lagunak azaldu digutenez, ziklo-krosa, errepide eta orain neguan, pistan egiten dituzte entrenamenduak. "Abuztuaren errepedeko denboraldia bukatzean, ziklo-

kroseko ibilbidean eta pistan egiten dituzte entrenamenduak. Maila batzuetan ia egunero entrenatzen dute," adierazi digute.

Gipuzkoako neguko trofeoa

Beraz, ez da harritzekoa, lehenengo asteburuan, urtarrilaren 30 eta 31ean, Peñagarikano junior mailako Gipuzkoako txapelketako saioetan puntu gehien lortu zituen txirindularia izatea.

Izan ere, bigarrenari Caja Ruraleko Ander Altunari 5

puntu errenta atera baitzion eta Andoaingo taldeko Mikel Iturriri 7 puntukoa.

Baina ez zen saio horietan Bazpiko kide bakarra izan, beste hiru gaztek parte hartu baitzuten txapelketan horretan, Jon Altuna lasarteoriatarra eta Xabier Bengoetxea eta Eñaut Pagola usurbildarrak.

Guztiekin neguan zehar pista lasterketa desberdinetan lortutako puntuei esker, Gipuzkoako txapelketako txartela lortu zuten eta txapelketa ona egin dute. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 6

10:30ean, Ostadar-Hernani (Emakumezkoen KDT F-II, kopa) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Lazkao (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

17:15ean, Texas Lasartearra-Zestoa (I. Erregionala) Michelinen.

10:00etan, Añorga-Ostadar (Infantil txikiak, txapeladunen fasea) Rezola, Añorgan.

13:00etan, Beti Ona-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Beraun, Errenterian.

14:00etan, Internacional-Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Matigoxotegi, Donostian.

17:15ean, Kostkas M.B.-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Matigoxotegi, Donostian.

17:30ean, Roteta-Ostadar (Erregional Gorena) Herrera, Donostian.

17:30ean, Segura Goierri-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Alustiza, Seguran.

Igandea 7

13:45ean, Ekintza-Ostadar (I. Kadetea, igoera fasea) Berio, Donostian.

FUTBOL 7

Igandea 7

12:00etan, Spartak de Obelix-Restaurante Anastasio (III. Maila) Urnietan.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 6

17:45ean, Aldaz H.K.-Jarrilleros (Nazional B maila) Kiroldegian.

Igandea 7

11:00etan, ISU Leihoak-Yone Boutique (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA
Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 5

20:30ean, Biyona-Viña del Mar

Larunbata 6

10:15ean, Lekuona Mena-IOB H.K.

11:15ean, Mingallon-Epel

12:15ean, Morrison-Oria Kris.

16:00etan, Siglo XX-Tragoxka

17:00etan, ISU Leihoak-Obelix

Igandea 7

10:00etan, Ainhoa-Izarra

11:00etan, Naiban-Izkiña

SASKIBALOA

Larunbata 6

16:00etan, Jalai-Mondragon Unibertsitatea (Gizonezkoen seniorra, igoera) Kiroldegian

ATLETISMOA

Larunbata 6

Asteburu osoan, LOKEko atletak Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute Anoetako Belodromoan, Donostian.

18:30ean, Leire Amiano LOKEko atletak kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du pertika proban, Oviedon.

PILOTA

Larunbata 6

16:00etan, Intza 2-Oiarpe 3 (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Michelinen.

18:00etan, Intza-Usubil (Eskuz binaka II. Seniorra) Michelinen.

16:00etan, Intza 2-Urnieta I (Eskuz binaka, infantilak) Jostaldi, Hondarribin.

16:00etan, Zestoa-Intza I (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Bergarako udal frontoian.

16:00etan, Hernani I-Intza I (Eskuz binaka, infantilak) Zestoa.

JUDOIA

Larunbata 6

Asteburu osoan, LOKEko Esteban Martinez, Mario Garrido, Abayuba Gutierrez, Josu Olmos judoek *Villa de Madrid* nazioarteko txapelketan parte hartuko dute, Madrilin.

Egunero

Erakusketa

ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du *Max Mbaye* senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.

Igandea, 7

Zinea

Alvin y las ardillas filma ikusgai haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena, 8

Zine soziala

Copyng Beethoven filma eskainiko dute eta ondoren Musika eta Gizarteari buruz arituko dira. Hizlaria Angel Garcia Ronda izango da. Danok Kidek antolatutako VI. Zinema Sozialaren Zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean



Mario Simancas kantautorea kulturetxeko kafetegian

Mario Simancas kantautorea Bilbon jaio, Donostian hezi eta Irunen bizi da. 3 urterekin pintatzen hasi zen, esku eta atzamarrekin... amak esan zion arte: Hemen ez dezu ezer pintatzen! Hain azkarra da, aktore lana hartu zuela bizitzeko... eta taberna zerbitzaria, kanguro eta alperra izan ondoren, bere ametsa egi bihurtu zuen...

Mariok abestu, dantzatu eta kitarra jotzen du inoiz hau egin ez balu bezala... eta hala da, ez du inoiz egin, baina hala ere gitarra jotzen: ulergaitza.

GAUR, OSTIRALA
KULTURETXEKO KAFETEGIAN 20:00ETAN

Osteguna, 11

Kontzertua

KONTZERTU BUFOA eskainiko dute Udal Musika eskolako ikasleek. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Zinea

Man on wire filma eskainiko dute Okendo Zinema taldeak antolatuta. Sarrera, 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 12

Liburu aurkezpena

Jose Luis Navaroren RELATO BREVE DE LASARTE liburuaren aurkezpena. Kulturetxean, 19:00etan.

Astelehena, 15

Zine soziala

BALZAK Y LA JOVEN COSTURERA CHINA filma. Ondoren Literatura eta gizartea buruz arituko dira. Danok Kidek antolatutako VI. Zinema Sozialaren Zikloaren barruan. Kulturetxean, 17:30ean

Eskutitzak

Errausketaren aurkako plataformek 'Irekia ataria' iruzurra dela uste dute

Patxi Lopez Lehendakariak eta bere gobernu-kideek aurkeztu berri duten IREKIA Internet-eko ataria Eusko Jaurlaritzak bere buruaren propaganda egiteko tresna besterik ez da, kezkatuta egongo baitira herritarren artean duten irudi txarragatik, argitaratu dien inkestek diotenez.

Duela hilabete gutxi Gobernu honek berak eta egun batzuk beranduago Legebiltzarrak, PNV, PSE eta PPren botoekin, Hondakinen Euskal Legearen inguruko eztabaida bere era ukatu egin zuten, nahiz eta 35000 euskal herritarren sinadurak bultzatuta joan zen eta Legebiltzarrak berak ezarritako baldintza guztiak betezen zituen. Eusko Jaurlaritzak eta aipaturiko hiru alderdiek garbi utzi zuten zer den beraientzat demokrazia: noizean behin botoa eman eta politikoei eskuak libre uztea gure bizitza eta ongizatea haiek antola dezaten nahi duten bezala.

Orain horiek berak datoz esanez herritarrek iritzia eman behar dutela, beraiek erantzunago dituztela egiten diren proposamenak, faltsukeri handi bat da. Kasurik onenean, Jaurlaritzaren iritzien edo jardueraren aldekoak soilik kontuan hartuko eta komunikabideetara zabalduko dituzte.

EAEan gai askoren inguruak dago eztabaida zabalik, baina Jaurlaritzak desberdinen eta alderdi nagusien erantzuna beti berdina izaten da: Legebiltzarrean gehiengo gara.

Koordinadorak eskaera egingo lioke Patxi Lopez-i, hainbeste inporta baldin bazaiola herritarren partehartzea: herriz herri eztabaida ireki dezala hondakinen kudeaketaren inguruan (errausketa, zabortegia, atez atekoa, bosgarren edukiontzia...) non guztiok, iritzi batekoak eta besteakoak, parte hartzeko aukera izan dezagun eta, bukaera gisa, galdeketa loteslea egin dezan EAEan. Hortxe dago Usurbilen adibidea, otsailaren 27 eta 28an hondakinen bilketaren inguruko galdeketa egingo dute, duela urtebete gutxi gora behera hasitako prozesuari bukaera emanez.

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundea

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Erketzako inauterietako konpartsa

Erketz Dantza Taldeak jakinarazi nahi du inauterietako beraien konpartsan ateratzeko, azken entsaioa otsailaren 9an izango dela Zumaburuko eskolatan iluntzeko 8etan.

Gaia Munduko Dantzak da, ze herrialdeko moztorra pareja bakoitzak erabaki behar du. Gero dantzak denok batera egingo ditugu. Edonorentzako dago zuzendua, asteartean azaldu besterik ez du egin behar, bai bai ume edo bai heldu.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, zilarezko eskumuturrekoa, Seiko markako bi eskumuturreko erloju, Viceroy markako eskumuturreko erloju, Massimo Dutti markako eskumuturreko erloju, diru-zorroa, urrezko eraztuna, urrezko katea eta zilarezko zintzilikarioa.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-

beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Eskerrak eman solidarioei

Lasarte-Oriako parrokiak Misio taldeek Haitiren aldeko afari solidarioa antolatu zuten urtarrilaren 23an. Bertan 4.300 euro jaso ziren, Mese-deetako Amen ordenaren bitartez Haitira bideratuko direnak. Antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiete afarian parte hartu zutenei eta nahiz eta ez joan afarira, dirua eman zutenei. Haitik gure beharra duelako, mila esker.

Marrazki eta pintura eskolak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarrekin jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.



Inauteriak

Aurten ere Ttakun Kultur Elkarrekin deialdi zabala egin nahi die herritarrei inauterietako desfile bilerak antolatu parte hartzeko. Filmak izan da aukeratutako gaia. Parte hartzeko asmoa baduzue, ostiraletan bilerak egingo dira Iñigo de Loiola kaleko Gazte Lokalean 17:00etan. Edozein zalan-tzarekin deitu edo pasa lasai Ttakunetik, 943 371448. Animatu eta hartu parte!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintzarri@txintzarri.info
txintzarri@ttakun.com

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri **T X I N T X A R R I a l d i z k a r r i a**. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintzarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Landaberri ikastolako txikiak izan ziren lehenak Santa Ageda bezperako eskean.



Amalur eskolako haurrak, gurasoen laguntzaz egin zuten eskea herriko erdigunetik.

Kantuak eta makil hotsak

A tzo Euskal Herriko ohi-tura zaharrenetarikoa jarraipena izan zuen Lasarte-Orian: Santa Ageda bezperan, koplak atez ate abestera ateraz ziren hainbat lagun. Urtero legez, herriarrek ez zuten kale egin eta eskean ateraz ziren, eguraldi segurua ez zenez, zeruari begira.

Ohiko taldeak kantuan

Goizean, haizeari aurre egin ez, Landaberri ikastolako txikiak koplak kantuan ibili ziren herri erdialdeko kaleetan zehar eta herriarren esker ona ezaguru zuten, txanpon eta goxokiak jasoz.

Eta arratsaldera arte, ez ziren berriro ere herrian koplak entzun.

Amalur Trikitixa eta Pandero eskolakoak Andatza plaza-zatik ateraz ziren 18:30ean.

Haurrek trikitixa, pandero eta txistuarekin doinua jo, gurasoek makilarekin hotsarekin eritimoa eraman eta guztiak batera koplak herriko erdigunean zabaldi zituzten, aho batez.

Baserrietan eskean

Erketz Dantza Taldeko lagunak, ohi bezala, herrian bueltaxka bat egin eta baserrietako bidea hartu

zuten, haietan eskea egitera.

Zabaleta auzoan eta inguruko baserrietan ere makilen hotsak eta koplak entzun zituzten, auzoko lagunak ahotsetan.

Mojei kantuan

Eta komentuan ere entzun ziren Santa Ageda bezperako abestiak, Bertso Eskola eta Xumela koruaren eskutik.

Hauek Udal Musika eskolako trikitilarien laguntzaz tabernaz taberna egin zuten eskea, baina aurtan ohiko bidetik ateraz eta komentuko mojei ere kantuak eskaini zituzten. •



Erketz Dantza taldeak eskean hasi baino lehen argazkia ateraz zuten.



Xumela koruko lagunak, Bertso eskolarekin batera ateraz ziren eskean.



Zabaletako lagunak koplak abestu zituzten auzoan eta inguruko baserrietan.



OTEGI

SAGARDOTEGIA

SOLLAENEA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029